

## NAFARROAKO KARLOS III.A NOBLEAREN GURTUTZA

Nafarroako Gobernuak, apirilaren 14ko 104/1997 Foru Dekretuaren bidez, "Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta" delako ohore domina sortu zuen, bere jardueraren ariketik Nafarroaren aurrerabidean edo Foru Komunitatearen proiektio eta opeari nabarmenki bultzatze egin izan dioten pertsona nahiz erakundeak ohoratzeko.

Ohore domina horrek Maltako gurutze bat du osagai, lau besoak gorri zsmaltaturik, urrez azpildunik eta metal bereko lis lore banaz apaindurik dauzkana. Erdian, esmaltean, Nafarroako Karlos III.a Noblearen irudi maiestatikoa ageri du, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordetik dauden haren zenbait argizari-zigilutan ageri den moduan, inguru guztian Nafarroako kateak urrez dituela. Dominaren bingerrean, Nafarroako armari ofiziala du, "Nafarroako Foru Komunitatea" hitzen gainean, eta "Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta" esaldia.

Dolina sortzeko lege testuak ezartzen du Nafarroako Gobernuaren Foru Dekretu batek erabakiko duela Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta nori eman, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturik, eta hots handikoekitaldi batean eman dela.

### PROGRAMA

Nafarroako himnoa. *Ereinuaren sarrerako martxa*, Runa flauta bikoteak joa

Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak hartzaile haueri emanen die Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta:

SANTA MARÍA LA REAL ETXEKO ANDRE,  
KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEEN ELKARTEA  
AURELIO SAGASETA ARIZTEGUI  
LOS IRUÑA'KO

Demode Quartet ahots laukoteak *Riau Riau abestuko du*, *Astrainen bals ospetsua* omari harturik konposatua, Iruñeko San Fermín jaietako lehenbiziko egunaren musika tipikoa. Taldearen bertso jatorrizkoa, merengue estiloan eta a capela kantatua

Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak hartzaile haueri emanen die Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta:

JESÚS CÍA ASENSIO  
FÁTIMA DJARRA SANI  
JULIO SESMA MARTÍNEZ

*Over the rainbow* ("ostadarraren gainean"). *Ozko Magoa* (1939) filmeko baladaren gaztelarazko bertsoa, Demode Quartet Taldearen *Todos los Musicales*, o *casi* ikuskizunaren osagaia.

Jatorrizko bertsoia swing lasterraren estiloan eta a capela kantatua

Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak hartzaile haueri emanen die Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta:

PEDRO BLANCO ARIZA  
JESÚS SARASA MURUGARREN

*Eperak* kantaren entzualdia, Anje Duhalderen eskual kanta jatorrizkoan oinarritua. Demode Quartet-en jatorrizko bertsoan, hip-hop estiloan a capela kantatua

Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren, Uxue Barkos Berruezo andrearen hitzak

*Agurra*, omenezko herri kantaren entzualdia. Kantak oraingan Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzeta saritutako pertsonaei egiten die omenaldi. Demode Quartet-en jatorrizko bertsoan, gospel estiloan a capela kantatua

Musika entzualdiak:

Runa flauta bikotea. Osakideak: Ana Sarobe eta Roberto Casado.

Demode Quartet. Ahots laukotea, 2010ean fundatua; osakideak: Joli Pascualena, Mikel de la Fuente, Iker Huetzi eta David Rosco, a capela kantatze estilo berezia du. Arrakasta handiko lau ikuskizun taularatu ditu; haietako azkena, *Todos los Musicales* o *casi* izan da, eta Broadway World Spain 2018 sarietan antzerki hobereanarentzat izendatua izan zen. Telebista ikuskizun eta programa ospetsuetan parte hartu du eta bai hainbat film eta publikitate kanpainatarako kantak abestu ere.

### SANTA MARÍA LA REAL ETXEKO ANDRE, KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEEN ELKARTEA

Iruñean fundatua 1967an. Kontsumitzaile eta erabiltzaileei laguntza, aholkua, informazioa eta prestakuntza emateko lan saiatua egin du, etxeko andreei arreta berezia emanez. Emakumeen elkarte mugimenduen, Administrazio Publikoen, gizarte erakundeen eta herritarren arteko elkarriketa bultzatu du, eta bai deblauki sustatu ere emakumeen eskubideen defentsa, etxeko andrearen gizarte estimu ona eta haien gizarte-partehartzearen errebindikazioa. 50 baino gehiago urtetan bere lana egin ondoren, 2019. urtean amaiera eman, eta bere egoitza Gizarte Etxebizitzaren Nafar Funtzari utzi zion.

### AURELIO SAGASETA ARIZTEGUI

Iturengo semea, apeza, Konposizio Irakaslea Pablo Sarasate Kontsektorioan, erlijio musikan aditua eta Iruñeko katedralaren kapera maisua izana 1962az geroztik. Postu horretan gogorri saiatu zen hura bizirik edukitzean, Nafarroako konpositoreen obra ezezagunak ageriatuz eta beste erlijio lan handiekin batera programatuz. Haren ibilbideak hainbat musikari belarunen estimua eta aitormena ekarri dizkio konpositore eta zuzendari aparta bezala.

### LOS IRUÑA'KO

Iruñean 1954an sortutako musika taldea. Haren azkeneko osaearen Alberto Huarte, Joaquín Zabalza, Iñaki Astondoak, Enrique Los Arcos eta Enrique Abad ziren partaideak. Haietatik azken biak daude gaur bizirik. San Ferminteko kanta asko eta pop kutsuko tema arrakastatsu asko kantatu zituzten, eta bai Europan eta Amerikan zabaldu ere, hainbat grabazio eta galatan. Haien musikari doi nahasirik ageri ziren modernotasuna eta lokalismoa, eta horri esker aukera izan zuten orduko artista seinaltatu askorekin agertoki berean azaltzeko, hala nola The Platters, Los Panchos, Cliff Richard, Pedro Vargas, Lucho Gatica, Sammy Davis, Josephine Baker, Charles Aznavour edo Los Cinco Latinos.

### JESÚS CÍA ASENSIO

2003an Josenea fundatu zuen, gizartetik kanporatu pertsonak gizarteratzeko elkarte soziorabonala, gaur erreferentzia bihurtua Espainiako produkzio ekologikoko enpresetan. Haren Iruberriko etaldean, modu organikoan eta enorgiaz bere buruz horniturik, belar urrintsuen eta sendabelarren ia 60 espezie hazi eta ondoren merkaturatzen ditu. 2003az geroztik 120 langile baino gehiago pasatu dira Joseneatik eta bai haietatik 968gek lanpostu egonkorra erdietsi ere (Espainiako gizarteratze tasarik handiena). Hondakin organikoan bioekonomia zirkularrako proiektuagatik, Josenea Interes Foraleko inbertsiontzat deklaratu da.

### FÁTIMA DJARRA SANI

Bisaun jaioa (Ginea Bisau), Eraikuntza Zibileko eta Gizarteratze Laneko Goi mailako teknikaria da. Mutilazio genitalaren kontrako borrokan aktibista txiki ezaguna da. Berak nozitu zuen praktika hori, lau urterekin. Bere lanarekin Nafarroako gizartearen oharraren gainean jarri nahi du nola mutilazio genitalak larriki urratzen dituen emakume eta neskatilen eskubideak eta nola genero indarkeria mota bat den, eta pertsona askoren sinemenetan sakonki sustraitua badago ere, arrazo sozial, kultural eta estetikoengatik giza eskubideekin argiro bateraezkin diren.

### JULIO SESMA MARTÍNEZ

Sartagudako semea, Nafarroan memoria historikoa berreskuratzearren bultzatzailea, eta 2018. urtera arte Sartagudako Pueblo de la Viudas elkartearen burua izan da. Memoria horren belaeunz belaunezko transmisioaren agerkeri ederra da, zeren bere lekukotasun pertsonala eta familiarra eman baitu ezagutzera—aita fusilatua izan zen 1936ko kolpe militarren ondoren eta berak oso haurtzaro eta gaztearo zailak bizi izan zituen— hainbat hitzaldi emanez herrietan, ikastetxeetan, komunikabideetan eta elkarreetan, eta bai Sartagudako Memoriaren Parkean ere, zeinaren partaide saiatua izan baita.

### PEDRO BLANCO ARIZA

Tuterako semea, Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean. Karrera profesional distiratsua egin du irratian, gehienbat Cadena Ser irratian, Fin de Semana, Hora 20, Hoy por hoy eta Hora 25 bezalako programetan, Madrilgo Cadena Ser kateko edukien zuzendaria izan da, eta bai Irratiko Kazetaritza irakatsi ere unibertsitatean. Nafarroako Erriberaren ezaguera jendarteratzen lan handia egin du beti, hango arte, kultura, turismo eta gastronomia ondarea orori erakutsiz.

### JESUS SARASA MURUGARREN

Andosillako semea. Nekazaritza Ingeniarria, Nekazaritzako Ekonomia espezializatua. Lotura handia izan du nekazari kooperatiben mugimendurekin eta Nafarroako Lehen Sektorearen garapena bultzatzen lan handia egin du. 1988az geroztik eta hiru hamarkadatan barna, Agropetuarria Navarra taldeko zuzendaria nagusia izan da, Espainiako kooperatiba multzorik handienetako bat hain zuzen. Nafarroako eta beste zazpi autonomi erkidegotako 169 kooperatiba baino gehiago hartzen ditu, 1.640 langilerekin.

Acto de entrega de la condecoración

## CRUZ DE CARLOS III EL NOBLE DE NAVARRA

Concedida a:

ASOCIACIÓN DE AMAS DE CASA, CONSUMIDORES Y USUARIOS SANTA MARÍA LA REAL

AURELIO SAGASETA ARIZTEGUI

LOS IRUÑA'KO

JESÚS CÍA ASENSIO

FÁTIMA DJARRA SANI

JULIO SESMA MARTÍNEZ

PEDRO BLANCO ARIZA

JESÚS SARASA MURUGARREN



30 de marzo de 2019

Claustro Isabelino del Departamento de Cultura, Deporte y Juventud  
Pamplona

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua  de Navarra